

<https://www.oarsoaldea.com/cookie> ak erabiltzen ditu zure nabigazioa eragindako publikitate erakusteko eta analisi estatistikoak egiteko. Onartu  
<https://oarsoaldea.hitza.eus/cookieak/> informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu hemen.





[\(https://www8.smartadserver.com/click?imgid=23204430&insid=8451562&pgid=1024040&ckid=3381941171345454459&ui=232038085272095449&acd=1567145729002&pubid=20&tmstp=1394491958&tgt=%24dt%3d1t%3b%24dt%3d1t%3b%24hc&sysgt=%24tallerra-familian%2f&go=http%3a%2f%2fwww.iragarkilaburrak.eus\)](https://www8.smartadserver.com/click?imgid=23204430&insid=8451562&pgid=1024040&ckid=3381941171345454459&ui=232038085272095449&acd=1567145729002&pubid=20&tmstp=1394491958&tgt=%24dt%3d1t%3b%24dt%3d1t%3b%24hc&sysgt=%24tallerra-familian%2f&go=http%3a%2f%2fwww.iragarkilaburrak.eus)

## Suspertze tailerra, familian



Miaren 23an emango du hitzaldia DYAK.

[Errenteria-Orereta \(https://oarsoaldea.hitza.eus/herriak/errenteria-orereta/\)](https://oarsoaldea.hitza.eus/herriak/errenteria-orereta/)

[Gizartea \(https://oarsoaldea.hitza.eus/gaiak/gizartea/\)](https://oarsoaldea.hitza.eus/gaiak/gizartea/)

Familia tailerra, hitzaldia eta sorospen ikastaroa antolatu ditu DYAK.

[2019 \(https://oarsoaldea.hitza.eus/2019/08\)](https://oarsoaldea.hitza.eus/2019/08)
<https://oarsoaldea.hitza.eus/2019/08/29>


[ikerne Zarate \(https://oarsoaldea.hitza.eus/sinadurak/ikerne-zarate/\)](https://oarsoaldea.hitza.eus/sinadurak/ikerne-zarate/)

Bihotz Biriken Suspertze tailerra antolatu du DYAK. Badu berezitasun bat, familian egitekoa da proposatu duen tailerra eta irailaren 8an egingo dute Reina Aretoan 11:00etatik 13:00etara. Bihotz-Biriken Geldialdi bat identifikatzen eta horren aurrean jokatzeko irakatsiko du tailer horrek. Heldu bakoitzak 6 urtez gorako hiru umeekin izena emateko aukera izango du. Tailerra doakoa da.

Horrekin batera, lehen sorospen hitzaldia emango du. Irailaren 11n izango da hori 19:00etatik 21:00etara. Itotzeaz, zauriez, erredurez, traumatismoaz, bularreko minez, buruko isuriez, garuneko tronbosiez, konbulsioez, eta konorte galeraz hitz egingo dute, besteak beste. Hitzaldia ere, doakoa izango da.

Azkenik, lehen sorospen ikastaroa emango du irailaren 16tik urriaren 9ra bitartean, 19:00etatik 21:00etara, astelehenera ostegunera, Koldo Mitxelena Institutuan. Ikastaro horretan egunerokoan topa daitezkeen arriskurik nagusien gaineko informazio zabalduko dute, eta nola aurre egin dakieken azalduko: bihotz biriken suspertzea, zauriak, hausturak, erredurak... Hala nahi duten ikasleek Sorospen titulua eskuratzeko dute kurso amaieran egiten diren kalifikazio probak gaintzen badituzte. 110 euro balio ditu matrikulak.

Lekuak mugatuak dira, emandako prestakuntzaren kalitatea bermatzeko, eta interesdunek 943 46 46 22 telefono zenbakira deitu behar dute izena eman edota zalantzak argitzeko edota [DYAren webgunean \(https://www.dyagipuzkoa.com/eu/\)](https://www.dyagipuzkoa.com/eu/) sartu.

**Oarsoaldeari buruzko kalitatezko informazioa** eta gertukoak jaso nahi dudalako. **Euskaraz** bizi nahi dudalako eta hizkuntzaren biziberritzea bultzatu nahi dudalako. **Herrigintza egin nahi dudalako.** **Oarsoaldeko euskarazko komunitatearen parte izan nahi dudalako.** **Oarsoaldeko herritarrok behar dugulako.**

*Egin HITZAKIDE (https://oarsoaldea.hitza.eus/hitzakide/izan/)*

[Eguraldia \(https://www.tiempo.com/\)](https://www.tiempo.com/)  
 Iturria: [\(https://www.tiempo.com/\)](https://www.tiempo.com/)  
**Errenteria-Orereta**  
 Ostarteak  
 Euria: 0mm